

# IDAHO

## EUSKALDUNEZ

Idaho! Zein euskaldunek ez du, behin bederen, urrun-urruinez eta «cow-boy» irudiz oraturik, leku-izen eder hau entzun? Ezen Far-West-eko bigarren Bizkai txiki hau, mende honetan sortu baita hemen, bizkaitar odolez eta berbeetaz.

Idaho: 217.000 km.<sup>2</sup>, 712.567 biztanle. Lurralde hutsa, hortaz; honen araberá (3,5 bizt./km.<sup>2</sup>) Euskal Herri osoan 70.000 lagun baizik ez baike nuke izan beharko!


Lurralde ederra, zinez ederra, lparaldean batez ere.

Zenbat euskaldun hemen? Nekez jakin daiteke. Baina, hemengo honekin eta harekin hitzeginda, kopuru hauk eman bide daitezke.

Idaho osoan ... .. 5.000 euskaldun  
Boiseko eskualdean ... .. 3.000 »

Ez baita asko, egia esan (Kalifornian hamar-milaka kondatu behar lirake); nahiz Boisek (Idahoko hiriburuak) 74.990 biztanle baino ez izan; eta Boiseko eskualdeak (Boise bera, Nampa, Caldwell) 119.044 biztanle.

Nola liteke, hortaz, Idahoko euskaldunok horren ezagunak izatea? Kaliforniakoak ipartarrak dira gehienik; eta Idahokoak, berriz, ia berezuntzarrik gabe, bizkaitarrak; eta bizkaitarrak, itxura denez, bortitzago eta zalapartariago gertatzen... Bizkaitarrak bakarrik ez, gainera; baina Busturia-Artibai ingurukoak: Aulestia, Arrieta, Munittibar, Muxika, Errigoitia, Ipizter, Lekeitio, hustu ere egin direla pentsa liteke hemengoak ikusita.



Boiseko Kapitoloia  
(Horko bigarren puntuzkoa da Zenarruza)

Idahoko euskaldunak; horretara, «chicano»ak baino gutxiago dira (7.440 chicano), eta indioak berak ere baino urriago ere bai (7.000 indio daude hemen, denetara, «Bannock» eta «Nez Perce» leinuetakoak). Baina indio hauk «reserve» delakoetan bizi dira, amerikatar gizartetik oso berezirik; eta euskaldunak, berriz, bai Boisen bai beste lekuetan, ezerezetik abiatutik, lanaren poderioz eta ez bestela, aski gora iritxiak. Ez da harrizkoa, horretara, euskaldunek Idahon entzute ona izatea. «Hemengo presondegiatan —segurtatzen zidan harrotasunez Boiseko adiskide batek— euskaldunik bat ere ez dago».

### EUSKALTASUNA

Hemengo «Basque Center» dela-

koan askoz maizago entzuten da euskara, inglesa baino; eta, noski, espainiera inoiz ere ez ia-ia. Burubidez esan liteke agian, beraz, bizkaiera gaur hobeto eta aisago ikas daitekeela Idahon, Bizkaian bertan baino! Baina, jakina (Boisen ere berdin!) euskaldunen buruzagi izateko edozer da beharrrago euskara baino; eta, hori dela bide, «Basque Center»ko oraingo buruzagia den David Eguren euskaraz ez daki; nahiz bazkiderik gehienek, baserriko seme jatorriz, euskaraz hobeki egin beste ezertaz baino.

Boiseko «Basque Center» delakoak 800 bazkide ditu; eta zapatuetan eta domeketan (honela esan beharko...) jendez betea egoten da. Oso etxe ederra da, txit dotore apaindua, eta Boiseko erdi-erdian. Zoritxarrez, eta ezinbestean dirudienez, Euskal Herriko saltsa-giroa honeraino ere hasia da hedatzen; eta oñaztarrak eta ganboatarrak ugaltzen.

Hemengo euskaldunik gehienek amerikatar aitortzen dute lehenik beren burua, eta gero bakarrik euskaldun. Eta batzuek harako gogoá badute ere, gehienek hementxe bizitzeko eta hiltzeko asmoa dute. Hau aitortuko ez balute ere, igerri egingo litzazie; baina esan ere egiten dute ziplo. Eta honetatik heldu zaie, nik uste, seme-alabei euskaraz ez erakusteko joera.

Cerdeña-ko Alguer-en, horrela, 700 urtez 12.000 katalanek beren hizkuntzari eta herritasunari eutsi badijete ere, Idahon ez da horrelakorik gertatuko; eta hirugarrenean beranduenik, ez da hemen gehienengan euskal izena baizik geldituko.

Gehienek bilakabidea, horretara, dena ez bada ere, hauxe da:

1) Lehenengo belauna. — Bizkaitar hutsak, ingelesez nekez; bihotza Euskal Herrian, baina Idahon bizi eta hil.





2) Bigarren belauna. — Gurasoekin euskara ikasia; ulertu bai beraz, baina beti ingelesez ari. Bihotza hemen, eta Euskal Herriarekiko halako errespetu leuna.

3) Hirugarren belauna. — Ameriketar osoak gehienak; baina, azalduko dudanez, euskal pizkunde harrigarria batzutan.

## PIZKUNDEA

Zer atxiki ote ditu Cerdeña-ko katalanak edo Brindisi-ko greziarrak, urteetan barrena beren etorkizko bi hizkuntzei eusteko? Nola uler ote daiteke Salonikan juduek 500 urtez beren «sefardi» hizkerari eustea? Zer gertatzen ote zaigu euskaldunoi geure burua horren erraz ukatzeko?

Hirugarren belauneko zenbaitengan, dena dela, eta hau garbiki esan behar da, badago orain aurkako joera berri bat. Eta famili-bidez euskaraz arrastorik ez zekiten gazte batzuek, ikasi egin dute beren buruz, eta jatorrizko beren Euskal Herrira itzuli nahi dute nola edo hala. Eta Idahoko bizimodua, natura ezin ederrago honetan, Euskal Herrikoa baino mila aldiz errazago eta leunago izanik ere, utzi egin nahi dute erabat, eta sorterrira joan. Uztaritzen eta Oñatin egon diren batzuegan nabarmen dago atxikimendu hau; eta batek eta bestek aitortu dute egun hauetan, «erdibiturik» bizi direla hemen; eta, zinez, hara-nahi amorratuan. Zer ote da gertakari harrigarri hau, Euskal Herrian eta beste etni-lurraldeetan sumatzen den sustrai-bilaketa sendoa besterik?

nez merezi luke gorazarre bat euskaldunengandik.

Eta bihotza euskalduna du errotik; eta euskal saiaketa guztietan dago, ez hizpiderik eta atsekaberik gabe; eta ziren.

Zeren-eta hemengo euskaldun asko, gehien gehienak, ongi bizi baitira hemen: xaleta ezin ederragotan, berebil ezin hoberen jabe, soldata harrigarri ordainduak. Ijeneru gazte batek, esate baterako, 1.400/1.500 dolar irabaz ditzake hilabetean; eta lan arruntetan ari den langile soil batek, berebat, askotan irabazten ditu 8 dolar orduan. Ez da egia, bestalde, gauzak, trukean alegia, gure Iparraldean baino garestiago daudenik. Euskal Herria hemendik 11.000 kilometrotara gertaturik, nor harri daiteke hemengo gehien epeltasunaz? Eta nork ez du behar bezala istimatuko gazte euskaltzale hauen arima suharra?

Ba ote daki irakurleak, ordea, joan den urteaz geroztik, eta euskaldunen ohoretan, gure Bazko-Eguna famatua hemen ofizialki besta-eguna aitortua denik? Erabaki hau, harri gaitzen, Andrus Idahoko Gobernariak eta Boiseko Alkateak hartu zuten iaz. Baina, atzean, apalki baina nekagaitz, nork lortu zuen hori ongi dakigu: Peter Zenarruza jaunak.

Ezen Zenarruza hau, Idahoko Carey herriskan orain dela 53 urte sortua, bizkaitar odolekoa baita (Gernika alderdikoak zituen bai aita bai ama, lehenengo aldiz honera etorri nintzeanean bizirik); eta etxen gurasoekin ikasi zuen bizkaiera hura ez baitzaio ahaztu. Zenarruza, gizon apalik baldin bada gizon apala, pilotu aparta, hazkuntza-bidez gaur aberatsa, gaztetan artzain ibilia, gaur Idahoko bigarren pertsonaia da: «Secretary of State».



Pete Zenarruza  
Idahoko "Secretary of State"

Idahoko bi senadoreak (Mc Lure et Church) euskaldunen alde agertuak dira behin eta berriz, bigarrena batez ere. Eta hau oso inportantea daiteke geroari buruz; zeren Frantz Church senadorea, 51 urte, hemengo Lehendakari-gai presentatuko baita aurki, Demokraten izenean. Hots, beti bezala, Washington-en errezebitu gintueanean, ez zitzaion ahaztu euskaldunekiko duen ongi-nahia guri ere agertzea.

## BI LEKEITIAR

Baina ezin nezake artikulua hau buka hemen gailen ageri diren bi lekeitiar aipatu gabe. Biak euskaltzale sutsu.


Gaztea bata, Justo Sarria, dena su eta gar, beroegi agian hemengo epe-lagoan arterako; baina beti fin.

Eta helduagoa bestea, Joseba Eiguren, Nevada-ko Jordan Valley-n orain dela 60 urte jaioa; bost urtez artzain ibilia, eta hemengo euskaldunen artean inor ez bezala maitatua, eta errespetatua.

Hizkeraren aldetik Lekeitioko kresal usain berberaz mintzo, ingelesez idatzitako euskal gramatika baten egile da Eiguren; eta nekatu gabe saiatzen da, liburu eta kaseta bidez, gure arazoak azaltzen; eta inork ez luke berak baino hobeki egingo, Eigurenek, Euskal Herrian gandi maiz ibili ondoren, zehazki ezagutzen baititu gure gorabeherak. Orain dela hilabete bakar batzuk, berriro ere, lau artikulua luze eta mamitsu argitara zituen Boiseko «Idaho Statesman»-ean. Gure goresmenak bihotzez aberkide zintzo honi.

Idahotik, beraz, bihotza Euskal Herrian atxiki duten euskaldun guztien izenean, agur t'ardi.

LARRESORO



Boise ondoko Snake-River gogorra